

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA						Kodea: 014777		
ARLOA / IRAKASGAIA	ARTE HEZKUNTZA						DATA	2022-2023	
MAILA	LH 5	LH 6							
1	ARLOAREN GUTXIENEO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA								
<ul style="list-style-type: none"> - Ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteek eta produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertzea. Arte eta produktu horiek Euskal Herriko eta oro har herri guztietako ondarea eratzen duten elementutzat hartzea, eta, horrela, artea eta kultura ezagutzen eta gozaten laguntzea. - Arte-hizkuntzen tekniken, baliabideen eta arauen oinarrizko ezagutza eta jakintza izatea. Teknlogiek eskaintzen dituzten aukerak irakastea, sorkuntzetan eta haien erantzunak egiten erabiltzeko, eta, horrela, maila bateko autonomia lortzea arte-hizkuntzaren bidezko komunikazioan. - Arte-adierazpenen teknikak, baliabideak eta arauak ikertzea eta aztertzea, ikusizko kulturako eta musika-kulturako lanetan, lan horiek hobeto ulertzeko eta lan horiez gehiago gozatzeko, eta erreferente estetiko berriak garatzeko aukera izateko. Horrez gainera, arte hizkuntzaren eremua zabaltzea. - Pentsaera dibergentearen eta konbergentearen trebetasunak eta norberaren eta besteren ideiak eta sentimenduak berregiteko ekimena, irudimena eta sormena erabiltzea, beharrezko prozesuak antolatuz, arte-ekoizpeneko lanetan erabili ahal izateko. - Gai izatea sorkuntza-proiektuak eta lanak garatzean emaitza jakin batzuk lortzeko egin beharreko prozesuen plangintza egiteko, ebaluatzeko eta doitzeko, eta horrek guztiak eskatzen dituen erronken jakinaren gainean egotea. Horrez gainera, arazoak sortuz gero, jarrera eraikitzailez konpontzea. - Arteen eta ikusizko kulturako eta musika-kulturako produktuen funtzio sozialak eta erabilerak ezagutzea, eta norberaren eta besteen esperimientuetan ezagutzea, produktu horiek hainbat garai eta kulturatan izan dezaketen eta izan duten zeregina ulertzeko eta norberaren kultura-ondarea eta inguruko beste kulturen ondarea ezagutzeko. - Ikusizko arte-ekoizpenak eta musika-ekoizpenak eta ekoizpen horiek sortu diren garaiaren eta tokiaren ezaugarriak lotzea, ekoizpenen arte-balioa ulertzeko, bai eta garai edo gizarte-talde baten adierazpen gisa ekoizpenek izandako balioa ere. Horrela, arte-ekoizpenaren eta ekoizpenak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean duen oihartzunaren eta esanahiaren balioa ezagutzeko eta kritika-prozesuak hasteko bideak irekiko dira. - Taldeko arte-jardueretan parte hartzea, besteren ekimenei eta ekarpenei laguntzea eta ekimen eta ekarpen horiek aintzat hartzea, errespetatzea eta elkartasunez jokatzeko, arte-emaitza ona lortzen lagunduko duten lankidetzako eta talde-laneko trebetasunak garatzeko eta, gizartearen alderditik begiratuta, garapen pertsonala izateko. - Norberaren artelanetan konfiantza izatea, lanak egiten gozatzea eta norberaren eta taldearen hazkunderako egiten duen ekarpena aintzat hartzea, auto-estimua sendotzeko eta ideiak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna hobetzeko. - Euskal kultura-ondarearen eta beste herri batzuetako ondarearen arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea eta adierazpen-moduak gordetzeko eta berritzeko egindako lana aintzat hartzea. Kontuan hartzea zer nolako aberastasuna ematen duen hainbat kulturatako pertsonekin trukea izateak. 									



2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA LH 5		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<p>PLASTIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kolore beroak eta hotzak. - Pablo Picasso: bizitza, Guernica, autorretratuak. - Gabonetako eskulana. <p>MUSIKA</p> <p>Edukiak proiektuen bidez landuko da, talde lana sustatuz; Musikaren garapena historia zehar, sorkuntzatik aro Erromantikorarte.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren A atala: <ul style="list-style-type: none"> - Aro historikoaren inguruko informazioaren irakurketa. - Irakurketaren ulermena galderen bidez. - Lan idatzia. - Gabonetako abestia. 	<p>PLASTIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Inauterietako eskulana. - Pausoz pauso egindako marrazkiak. - Errealismoa. <p>MUSIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren B atala (I): <ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpena prestatu google aurkezpena edo Canva erabiliz. - Proiektuaren B atala (II): <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko aurkezpena talde handian. - Txirula. - Partituren irakurketa eta erabilera. 	<p>PLASTIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Perspektibadun artelanak. - Komikia. - Eskulan librea material birziklatuak erabiliz. <p>MUSIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren C atala: <ul style="list-style-type: none"> - Koreografiaren prestakuntza (landutako garai historikoaren abesti bat erabiliz). - Garai horretako outfita prestatu, zer ekarri behar duten jakiteko. - Koreografiaren aurkezpena mozzoratuta. - Boomwhackers.
2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA LH 6		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<p>PLASTIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kandinsky: bizitza, bere estiloan oinarritutako artelana, bere obra baten interpretazioa. - Gabonetako eskulana. <p>MUSIKA</p> <p>Edukiak proiektuen bidez landuko</p>	<p>PLASTIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Inauterietako eskulana. - Arkitektu eta dekoratzaile proiektua. <p>MUSIKA</p> <p>Proiektuaren B atala (I):</p>	<p>PLASTIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Errealismo teknika. Gorputz eta aurpegiaren marrazketa. - Material birziklatuarekin sortutako artelanak. <p>MUSIKA</p>



<p>da, talde lana sustatuz; Musikaren garapena historia zehar, 1920tik 2000ra.</p> <p>- Proiektuaren A atala:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aro historikoaren informazioaren bilaketa. - Lan idatzia. <p>- Gabonetako abestia.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpena prestatu google aurkezpena edo Canva erabiliz. <p>- Proiektuareb B atala (II):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko aurkezpena talde handian. <p>- Txirula.</p> <p>- Partituren irakurketa eta erabilera.</p>	<p>- Proiektuaren C atala:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Koreografiaren prestakuntza (landutako garai historikoaren abesti bat erabiliz). - Garai horretako outfita prestatu, zer ekarri behar duten jakiteko. - Korografiaren aurkezpena mozorratuta. - Boomwhackers. <p>- Musika eta pelikulak.</p>
---	--	--

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Kolore beroak eta hotzak desberdintzeko gai da.
- Landutako artisten obrak identifikatzeko gai da.
- Landutako artistaren estiloan oinarrituta, bere artelan propioa egiteko gai da.
- Proposatzen zaizkion erronka artistikoen aurrean interbidea emateko gai da.
- Marrazketa teknika desberdinak identifikatu eta burutzeko gai da.
- Irudiek eta musikak eguneroko ingurunean dituzten esanahiak eta erabilerak kritikoki interpretatzeko gai da.
- Artelanek sortzeko duten garrantzia ulertu, eta ikuspegi kritikoa garatzeko interesa eta gaitasuna du.
- Musikao eboluzioaren ibilbidea ulertzeko eta adierazteko gai da.
- Historian zehar musikalki egon diren garapen zein aldaketa musikalak identifikatu eta azaltzeko gai da.
- Musika genero, dantza edo obra musikal bat entzutean, zein garairi dagokion esateko gai da, erantzuna arrazoituz.
- Talde lanean aritzen daki.
- Talde lanean lan egiteko gai da lana aurrera eramanez.
- Talde lanetako dinamiketan bere parte hartzea garrantzitsua da helburuak betez.
- Talde lanean gainerako taldekideak entzuten daki besteen ideiak eta lana erresperatauz.
- Talde lanean jorratutako edukia ulertu, barneratu eta azaltzeko gai da.
- Talde kideekin batera koreografia bat asmatzeko gai da.
- Dantza adierazpenak ondo burutzen ditu.
- Musikako oinarriko elementuen funtzioa daki eta partiturak interpretatzeko gai da.
- Txirula jotzeko gai da, landurako abestiak ondo interpretatuz.



- Jarduera guztietan parte hartzen du, lankidetzaz-jarrerak erakutsiz baita jarduera horiek ondo burutzeko gogoia erakutsiz ere.
- Ahozko adiermenetan helarazi nahi duen mezua ikaskideei heltzea lortzen du.
- Ikasten ikasteko estrategiak erabiltzen ditu.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

PLASTIKA

- **Prozedurak: %50** (Materialaren erabilera egokia, ikasitako tekniken erabilera, block-aren aurkezpena, lanaren azken emaitza...)
- **Jarrera:%50** (Lanaren eta materialaren ardura, bai irakasgaiarekiko, bai ikaskideekiko eta bai irakaslearekiko errespetua, materialaren ordena eta zainketa, bakarkakoa eta kolektiboa, ordena, lana ondo burutzeko interesa, garbitasuna lan egiteko eremuan...)

MUSIKA

- **Edukiak: % 30** (Proiektuaren lan idatzia, landutako garai historikoen ulermena, aurkezpenak, koreografiak...)
- **Prozedurak: %40** (Proiektuko materialaren erabilera ona eta txukuntasuna, proiektu osoko ikaskuntza prozesua, jarduera musikalak burutzeko era, autonomia, antolaketa, ingeleraren erabilera...)
- **Jarrera:%30** (Parte hartzea, talde lana zein lan indibiduala, lan egiteko nahia, interesa bai irakasgaiarekiko, bai ikaskideekiko eta bai irakaslearekiko errespetua...)